

Bero-beroan

Gero eta malguago

EAEKO HAUTESKUNDEAK gainean dira eta Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak hizkuntz ereduaren sistema aldatzeko lege proiektua dela-eta adostasuna lortzeko nahikoa lan badu. Esan da hirukoan adostu gabeko proposamena duela esku artean eta orain formula hori birformulatu egin du, EAJ eta PSE hurbildu nahian edo.

Camposek azaldu duenez, bigarren proposamen hau malguagoa da, eta era berean, hainbat eragilek aberastua. Hezkuntza Sailak berak bidalitako oharrean ondoko aldaketak nabarmendu ditu:

✓ Ikastetxeek esparru berrira egoki-

tzeko aldia ez da urtebetekoa izango lau urtekoa baizik.

✓ Ikastetxe bakoitzaren oinarritzko gaitasunak era orokorrean ebaluatzeko prozesuan integratuta egongo dira Lehen Hezkuntzako laugarreneko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarreneko ebaluazioak.

✓ Ikastetxeak helburuetara egokitzen ez badira ikastetxeek eskolatze premiak ez dituztela bete interpretatuko da, baina ez da hezkuntza-ituna era larrian urratu dela pentsatuko.

✓ Hizkuntzarekin zerikusirik ez duten arlo eta irakasgaien ehuneko hirurogeia, gutxienez, euskaraz eman beharko da. Irizpide hau Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

tzaren ondokoan malgotu ahal izango da, atzerriko hizkuntzak presentzia handiagoa izan dezaten.

Euskadi Irratian, Camposek hezkuntzako eragile eta sindikatuekin egindako bilkuraren ondoren, Ana Izagirre Euskal Eskola Publikoko Gurasoen Konfederazioko kideak hitz egin zuen. Maite Artola kazetariak galdetu zion ea eragileek nolako aurpegia jarri zuten Hezkuntza sailburuaren proposamen berria entzunda. Eta horrelako zerbait erantzun zuen: “Ez ditugu hainbeste urte behar egokitzeko’ aurpegia jarri du askok. Ikastetxeen ehuneko 95ak ez du lau urteko egokitzapenik behar, epea alferrik luzatzea da”.

TALAIAN

Sozialismoa berreraiki

Joan den asteburuan Bush buru izan duen nazioarteko bilkura egin dute Washingtonen. Bush da planeta atzerakada globalerako bidean jarri duen finantza hondamendiaren erantzule nagusia. Hondamen hori industriaren krisia eragiten ari da, milaka enpresek likideziarik gabe ezin baitute iraun eta likidezia hori bankuen kredituek ziurtatzen dute. Orain bankuen iturria itxita dago. Atlantikoaren bestaldean elkartu direnen asmoa ez da izan sistema ekonomiko kapitalista aldatzea, ezta hondamendiaren erantzule nagusiak epaitzea ere. Ez. Kapitalismoa berreraiki nahi dutenak eta Nazioarteko Moneta Funtsa banku zentral global gisa hartu nahi dutenak bildu dira han. Guztiek, Rodríguez Zapatero eta sozialdemokraziako beste liderrak barne, nahi dute sistema kapitalistak segitzea. Bilkura horrengandik eta hurrengoengandik ere, ez da gauza onik espero behar: kapital finantzarioaren diktadura. Zerbait (kontrol gehiago) aldatu nahi dute berdin-berdin segitzeko. Betikoek, bankariek eta espekulatuzaileek, irabaziak poltsikotzen jarraitzea nahi dute.

Eta ezker zertan ari da? Desagertu egin dela dirudi. Non daude globalizazio kapitalistaren kontrako mugimenduak? Ez al dago bestelako aukerarik? Egon behar du. Eraiki egin behar da. Venezuela, Bolivia eta Kuba, esate baterako, bestelako aukera horren norabidean doaz. Hemen, ezker abertzaleak eztabaida guneak iragarri ditu Nafarroan, gizarte kapitalista xahutzailearen, iruzurgilearen eta ustelaren ordezkoko aurkitzeko. Aitortu behar da ez dela erraza, baina ez da ezinezkoa langile eta herri xehearen beharrak aseko dituen sistema ekonomikoa eraikitzea. Sozialismoa berreraikitzea.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Jokin Larrañaga, Arabako Diputazioko Euskararen Foru-Zerbitzuko

arduradunak *Euskoenews* Median esanak:

“Erosoena litzateke herrialde osorako plan bakarra martxan jartzea. Baina, Araban zortzi koadrila daude, eta euskararen egoera horietako bakoitzean oso diferentea da (...) Egun, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia erabiltzen da udalerririk bakoitzean. Plan hori Gipuzkoa edo Bizkaiko herrietara egokitzeko diseinatuta dago, baina Araban ez du balio. Hemen herri batzuetan 500 lagun besterik ez da bizi, eta beraz, saiatu behar dugu diseinatzen herri bakoitzari egokitutako planak, kontuan hartuta herri horiek nolakoak diren. Eta hori egitea ezinezkoa izango da, baldin eta sare bat ez badugu lortzen herriak eta inguruak ezagutzen dituzten pertsonekin. Hori da, hain justu, une honetan esku artean dugun erronka nagusienetakoa”.

Pantxoa Etxegoinek UKn esanak:

“Hemen frantses medio batzuk hartzen dituzu, eta maiz gure kultura agertzen da karta postal batean bezala, oso itxia, zaharkitua, betiko irudiekina... Gu saiatzen gara erakusten eskual kultura modernoa, gaur egiten den kultura bizia, ez bakarrik atzokoa; atzokoa oinarrituta gaurko egiten diren sorkuntzak”.

EA-rekiko hainbat hipotesi

EA-K BAKARRIK aurkezteko hartu duen erabakia ez da samur ulertzekoa, azaletik begiratuta bederen. Azken hauteskundeetako emaitza txarrak hor daude, EAJren eskutik Gobernuaren epelean izateko urteetako aukera, Ibarretxe lehendakariari emandako sostengua –sarri EAJk eskainitakoa baino handiagoa, esan ohi dute EAkoek–, EAJ ukitu soberanista-gora bultzatzea... Arrazoi hauek adierazten zuten posible zela EAJ-EA koalizioa errepikatzea, areago jeltzaleek Ibarretxe hautagai gisa aurkeztu ondoren.

Koalizioaren arriskuak ere handiak izan dira beti EArentzat, horrek bere proiektua etengabe lausotzera behartzen zuelako. Eta, azkenean, badirudi bere izaeran konfiantza izan eta berau aurrera ateratzeko saioa, agintearen epela baino garrantzitsuagoa izan dela. Bere apustuan asmatuko duen ala ez jakin ezinean, estimatzekoa da norberaren izaera eta ideiak defendatzeko ahalegina boterean izatearen aurretik jartzea.

HAINBAT HIPOTESI egin daitezke. Bat, bakoitza bere aldetik aurkeztuta ere, oraingo hirukoak gehiengo lortzen du eta gobernu errepikatzen du. Patxi Lopezek gehiengo lortzen ez badu, ez da baztergarria eszenatoki hori, beti ere pentsatuz EAJren eta PSEren arteko emaitzak parean ibiliko direla.

Beste hipotesia bloke soberanistarena da. Hau da, azken boladan Lizarra-Garazi eta burujabetzaren aldeko deiadarrean ari diren hainbat indarrek plataformaren bat aurkezte eta EAK ere bere apustua hor kokatzea. Ideia hau elikatzen duten keinuak gero eta ugariagoak dira. Oztopoak ere bai. Batetik, denborarena, martxo ate joka da. Bestetik, argi da halako operazio batek ETaren onespena beharko



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

lukeela eta gainera gatazkaren konponbidearekin lotuta beharko litzatekeela. Egun, erakunde armatuak duen jarduera ikusita, ez dirudi gelditzekotan denik; baina oso posiblea da mugimenduren bat balego aurrekoak baino azkarragoak izatea. Ez dago horren zantzu agerikorik, baina iraganeko lanak ez dira alferrekoak, hau da, edozer eta edozeinek negoziatzekotan ere, hortxe izango du Loiolan jarritako langa; dagoneko ez dago hutsetik abiatu beharrik.

Ez da samurra irudikatzea gaur gaurkoz bigarren hipotesi horrek datozen hauteskunderi begira indar handirik duenik, baina aurrera begira lan ildo garrantzitsu eta gauzagarria izan liteke. Hirugarren hipotesi bat ere posible da: EAK beste dantateko bat hartzea hauteskunderen eta galbidean jartzea.

EUSKADIK eta Euskal Herriak antzeko esanahia izango du euskal nazioan sinesten duenarentzat, baina egia da Euskadi EAeko lurraldea izendatzeko erabili dela azken urte luzetan eta horrek izenari balore galera bat ekarri diola, batez ere Iparraldeko eta Nafarro-

ako abertzaleen artean. Euskal Herriak gaur egun hobeto islatzen ditu Zazpiak Bat multzoaren barruan kokatzen diren lurraldeak. Izendapen honek, gainera, interpretazio gehiagorako aukera ematen du, nazioaren ikuspegi politikoa garatzea ahalbidetzen duelako eta honetan sinesten ez duenak kultur ikuspegiari hel diezaiokeelako. Gaitza da irudikatzea Euskal Herriak nola egin dezakeen aurrera lurralde garapenean, ez bada kultur ikuspegi zabal eta identitate atxikimendu librearen bultzada sendotik; bestela esanda, euskal kultura eta identitatea garatu nahi duen Euskal Herriko edozein herritarrek ez dezala horretarako oztoporik izan, ez Bilbon, ez Angelun ezta Tuteran ere.

Identitatea lantzeko osagai garrantzitsua da gaur egun kirola. Horra futbol mundialak eta Olinpiadak, adibidez. Euskal selekzioaren inguruan ez dirudi zalantzarik dagoenik, beraz, izenak izana erosoan ordezkatzeko duena beharko du. Euskal Herria apustu ona da, baina jolastea garrantzitsuagoa da eta lehenago edo geroago akordioaren bat lortu beharko da.